

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Osasun Departamentuak NOGeko Larrialdietarako zerbitzu ekipamendua esleitu du 1,5 milioi euroren truke berriaren

Lizitazioaren aurrekontuari dagokionez % 17,2ko beherapena izan duen kontratazioa eginda, itxura guztien arabera, instalazioak 2014ko bigarren hiruhilekoan jarriko dira martxan.

Miércoles, 11 de diciembre de 2013

Osasunbidek Nafarroako Ospitaleguneko (NOG) Larrialdietarako eraikin berriko ekipamendua esleitu du 1,5 milioi euroren truke, hau da, lizitazioaren prezioari dagokionez % 17,2 gutxiago. Ekipoak kontratatuta, instalazioak datorren urteko bigarren hiruhilekoan irekiko dira.



Ebakuntza-gela baten irudia

Hala jakinarazi dio Marta Vera Osasun kontseilariak Nafarroako Gobernuari gaur goizean izandako bileran. Zerbitzu berria irekitzeak gaur egun bi eraikinetan (lehenago Nafarroako Ospitalea eta Bideko Ama Birjina) kokatuta dauden larrialdi orokorrak bateratzea ahalbidetuko du, eta hornidurak ere nabarmen hobetuko dira, pazienteen arretaren kalitatea hobetuz. NOGek, iaz, larrialdietako 166.808 kasu artatu zituen.

Ekipamendua

Ekipamenduaren kontratazioa iragan maiatzean atera zen lehiaketara. 1.879.820 euroko aurrekontua zuen (BEZa barne), hamahiru lotetan banatuta. Horien artean zeuden osasuna aztertzeko gailuak (OTA, ekografoa, X izpien bidezko diagnostikoa egiteko ekipoak), material eta ekipo txikiagoak (desfibriladoreak, arnagailuak, monitoreak etab.) eta askotariko altzariak (ohatilak, kontsulta-besaulkiak etab.). Lizitazioan 59 proposamen aurkeztu ziren.

Azkenean, ekipoak 1.556.497,80 euroren truke esleitu dira, hau da, aurrekontuaren % 17,2ko beherapenarekin. Loteen esleipendunak Normedan SL, Nihon Kohden Ibérica SL, Esaote España SA, Carbuo Metálicos SA, Dentalite Norte SA, Insanex SL, Drager Medical Hispania SA, Optomic España SA, Fujifilm Europe GmbH, Philips Ibérica SA eta Steris Iberia SA enpresak izan dira.

Eskuratutako ekipoei dagokienez, zenbatekoagatik azpimarratu beharrekoa da OTA ordenagailu bidezko tomografiak egiteko eskanerra, 583.000 euroren truke esleitu baita, hau da, lizitazioaren aurrekontua

baino % 20,31 gutxiago. Gailuak 64 mozte ere egiten ditu erradiologia-azterketa dinamikoetarako. Erradiazioa gutxitzen duten X izpien ekipo digital robotizatuak ere eskuratu dira. 352.000 euroko kostua izan du, hasierako aurrekontuarekin alderatuta % 18,14 gutxiago.

Hornidura berrien xehetasunak

NOGen Larrialdietarako Zerbitzu bateratua izango duen eraikina lehengo Nafarroako Ospitalea zegoen lursailean dago. 14.377 m²-ko lurzoru erabilgarria du, eta horietatik 3.500 m² larrialdietarako dira, beraz, gaur egungo tokiaren azalera bikoiztuko du (1.500 m²).

Hala, 25 pertsonatik 29ra handituko da aldi berean arreta jaso dezaketenen kopurua. 8 areto eta gela berezi egotetik 15 egotera aldatuko da, eta itzaroteko gelak 3 izatetik 6 izatera pasako dira. Larrialdiek bi zirkuitu izango dituzte: bata paziente arinentzat (A zirkuitua) eta bestea paziente larrientzat (B zirkuitua). Erabilera anitzeko areto bat ere egongo da hogeita hamar lekurekin, eskari ugari daudenerako ekipatuta eta prestatuta. Zehazki, 66 pertsona ere artatu ahal izango dira aldi berean larrialdietan (orain 25 pertsona arta daitezke), horietatik sei egoera kritikoan daudenen aretoan eta 60 erabilera anitzeko aretoan.

Eraikin berriak heliportua du teilatu lauan, deskontaminaziorako gela, isolamendurako gelak, zuzenean heliportura lotuta dagoen anbulantzientzako lurperko aparkalekua eta anbulantzientzako eta oinezkoentzako sarrera bereziak.

Eraikinaren obrak Acciona Infraestructuras eta Soniclima Industrial enpresek osaturiko ABEEK egin ditu, eta 21.324.371 euroko aurrekontua izan dute.